



Eranskina

Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

1.- Sarrera

Osasuna EAEko herritarron ondasun eta balio preziatuenetariko bat da, eta hura babestea, eskubide unibertuala. Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat dira, horrenbestez, osasun-politikak eta sistema sanitarioari eustea.

Egia da EAEko gizarteak herrialde garatu bati dagozkion emaitzak dituela osasun-arloan, non behar sanitarioei egokiro erantzuten baitzaie. Hori horrela da, dudarik gabe, EAEko gizartearen garapen-mailaren ondorioz, baina sistema sanitarioak bere ibilbidean zehar kalitatearen, modernizazioaren eta berrikuntzaren alde egindako ahaleginaren emaitza ere bada. Horrela lortu dugu EAEko herritarrek preziatzen eta erreferentetzat jotzen duten osasungintza publikoko eredu bat.

Osasun Sailaren 2021-2024rako Esparru Estrategikoaren helburua da desberdintasunik gabeko osasuna lortzea, hurbilagoa, gure politika guztietan presente dagoena, hartara lagungarria izan dadin ongizate eta bizi-kalitate hobea erdiesten gutako bakoitzarentzat eta EAEko gizarte osoarentzat.

Osasuna hobetzeko helburuaren barnean sartzen da, orobat, zerbitzu sanitarioez ikertzea eta arlo horretako esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzea, eta aintzat hartzen ditu bai interes sozial eta sanitario handia duten gaixotasunak, bai askotariko morbiditateak eta prozesu kronikoek sorrarazitako gaixotasun-karga.

Euskadiko Osasun Publikoari buruzko azaroaren 30eko 13/2023 Legearen 29. artikuluan xedatzen duen moduan, Euskadiko Osasun Plana funtsezko tresna bat da, hain zuzen Euskadiko osasun-arloko politikak, estrategiak eta jarduketak planifikatzeko eta koordinatzeko tresna gorena. Plan horrek «osasuna politika guztietan» bultzatzen du, osasuna eta osasun-ekitatea politika publiko guztien parte izan daitezen lagunduta eta arlo horretako sektorearteko ekintza ahalbidetuta. Indarrean dagoen plana, «Euskadi osasuntsuago baterako» Euskadiko Osasun Plana 2030, 2023ko ekainaren 7an onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Azken jomuga hori erdiesteko zehazten dituen helburuen artean, lau xede nagusi hauek nabarmentzen dira: haurren eta nerabeen osasun-garapena sustatzea; zahartze aktiboa eta bizitza osokoa sustatzea; EAEko herritarren artean saihestu daitekeen morbi-hilkortasuna gutxitzea; eta osasun-arloko desberdintasunak murriztea. Era berean, eta aurreko jomugei dagokienez, Planaren asmoa da laguntza-sistemen kalitatea eta osasun publikoko sistema indartzea; ingurumenaren osasuna zein hirigune eta gizarte-ingurune osasungarriak sustatzea;

eta pertsonen beren osasunean duten protagonismoa areagotzea. Baita osasun-arloko ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustuari eustea ere.

Bestalde, 2021-2024 aldirako Euskadiko arreta soziosanitarioko ildo estrategikoen helburu estrategikoetako bat da zerbitzu soziosanitarioak garatzea esku-hartze estrategikoaren xede diren kolektiboentzat, hau da «besteak beste honelako egoeretan daudenenentzat, zenbaitetan aldi berean: mendekotasuna, desgaitasuna, gizarte-bazterketa, garapen-premia bereziak, kalteberatasuna eta babesgabetasuna; hori dela-eta, diziplinarteko esku-hartzea behar dute». Kolektibo horien premia soziosanitarioei erantzuteko, xede-kolektibo soziosanitario bakoitzarentzako arretan dauden egitura-ahuleziak gainditzeko berariazko jarduketak garatuko dira, estrategia sektorialekin koordinatuta.

Esparrua hori dela, bost arlo handi hauek dira Osasun Sailak ematen dituen dirulaguntzen helmugak:

- Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea
- Adikzioak prebenitzea eta artatzea, bai eta arriskuak eta kalteak gutxitzea ere.
- Ikerketa eta berrikuntza
- Profesionalak
- Farmazia-prestazioa

1.1.- Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, EAEko botere publikoei dagokie osasuna sustatu eta indartzea jarduera sozioekonomikoan diharduten sektore guztietan, helburu hauek lortzeko: bizi-ohitura osasungarriak suspertzea, arrisku-faktoreak desagerraraztea, ondorio txarrak saihestea eta, batik bat, osasunaren garrantziaz jabetu eta kontzientziaztea. Halaber, aipatutako legearen 3. artikulua adierazten du EAEko administrazio sanitarioari dagokiola osasun publikoaren babes orokorra bermatzea, osasuna sustatzeko neurrien bidez.

Horrela, Eusko Jaurlaritzaren aburuz, lehentasunezkoa da herritarren erantzunkidetasuna sustatzea, bere osasunaren zaintzan eragile aktiboa izateko, eta, ahal dela, gaixotasuna ezagutzeko, prebenitzeko eta kudeatzeko gai. Hala, gizarte osasuntsuago eta bizi-kalitate hobekoa izango da gurea.

Osasunaren kultura landu behar da, osasuna sustatzean eta gaixotasunak prebenitzean indarra jarrita, eta uste argi batekin: osasuna pertsona guztien eta EAEko botere publiko guztien konpromisoa da eta izan behar da. Bereziki gure gizarte aurreratu honetan, zeinak azken hamarkadetan pertsonen osasunean zuzenean eragin duten gizarte- eta kultura-aldaketa handiak izan baititu. Luzarago eta hobeto bizi gara; hori egia da, baina, orobat, badakigu bizimodu ez oso osasungarriak zabaldu direla elikadurari, jarduera fisikoari eta mendekotasunak sor ditzaketen substantzien kontsumoari dagokienez. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa deritzogu osasunaren sustapenean indar handiagoa egiteari, bizimodu eta balio nahiz ohitura osasungarriei dagokienez, eta dietari, ariketa fisikoari eta elikadurari erreparatuz, besteak beste.

Halaber, garrantzitsua da sexu-transmisiozko infekzioak, GIBa eta C hepatitis prebenitzeko lanean jarraitzea, eragile sozial ukituekin lankidetzan.

1.2.- Adikzioak prebenitzea eta artatzea, bai eta arriskuak eta kalteak gutxitzea ere.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, adikzioak ikuspuntu integral eta diziplina anitzeko batetik aztertuta, printzipio nagusizat dauka osasunaren kultura bultzatzea, bizi-ohitura osasungarriak sustatuko dituena eta gizarteak adikzioen aurrean dituen jarrerak eta jokabideak aldatuko dituena. Lege horren helburu nagusia da drogak eta adikzioak sor ditzaketen bestelako substantziak kontsumitzeagatik eta jokabide-adikzioengatik arazoak dituzten pertsonen osasuna eta bizikalitatea hobetzea, eta, bereziki defendatzen ditu adingabeak eta gizarte-kolektibo kalteberenak.

Legean lehenetsunezko esparrua da prebentzio komunitarioa; batez ere adikzioei buruzko tokiko edo foru-planak dituzten udalerrietan eta mankomunitateetan garatzen da. Adikzioen prebentzio komunitarioarako talde teknikoek bitartez garatzen dituzte toki-erakunde horiek euren jarduketak. Osasun Sailaren finantza-laguntza daukate talde horietako profesionalen trebakuntza egokia emateko, adikzioen prebentzio komunitarioari lotutako politika eraginkortasunez gauzatu dezaten, hain zuzen.

Horrez gain, legeak irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen garrantzi handia aitortzen du, eta arlo horretan egiten dituzten proiektuei dirulaguntzak emateko bete behar diren baldintzak azaltzen ditu.

Jarduera horietan guztietan zertzen dira gorago aipatutako plangintza-tresna nagusiak, zeinek Osasun Sailaren estrategia definitzen baitute. Tresna horiei 2017-2021 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Plana gehitu behar zaie, Osasun Planari lotua. Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, 2017ko uztailaren 4an, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralari buruzko Legeak arautzen duena betez. Plan hori, «*Arriskuei aurre eginez, Osasuna eraikiz*» goiburupean, tresna estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztien estrategiak eta jarduketak planifikatu, antolatu eta koordinatzeko, indarrean dagoen aldian, eta adikzioen arloan diruz laguntzekoak izango diren jarduketan eta esku-hartzeen esparrua eta orientazioa ezartzen ditu.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren betebeharrak honako hauek dira, besteak beste: EAEko adikzioen arloko politika integrala zehaztea, droga-mendekotasunak eta jokabide-adikzioak prebenitzeko programak eta ekimenak bultzatu eta mantentzea eta gizarterakundeek, hedabideek eta, oro har, herritarrek droga-mendekotasunen arloko prebentzian, laguntzan eta gizarteratzean parte har dezaten bultzatzea.

1.3. Ikerketa eta berrikuntza

Osasuna ezagutza intentsibo handiko sektorea da, nagusietako bat, baita EAEn ere, eta plataforma berdingabea da herrialdearen espezializazio adimentsurako, osasun pertsonalizatuaren esparruan, non medikuntza pertsonalizatua bera (medikuntza genomikoa), terapia aurreratuak (Car T immunoterapia, terapia genomikoa eta terapia zelularra), gailu eta teknologia medikoak, osasun digitala eta Big Data, eta neurozientziak eta osasun mentala sartzen baitira. Ildo horretan, Osasun Sailak I+G+Bko jarduerak bultzatzen ditu, gure herrialdeak arloan egindako apustu estrategiko nagusien lerro estrategikoetatik bat diren heinean.

Euskal Autonomia Erkidegoak lehentasunezko arlotzat jo zuen espezializazio adimentsuaren estrategiaren barruan, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari atxikita dago (ZTBP 2030).

Osasun Sailak 2022-2025 aldirako Osasun-arloan Ikertzeko eta Berritzeko Estrategia landu zuen, sailaren lerro estrategikoak (zehazki ikerketa eta berrikuntza indartzea) garatzeko.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Biomedikuntzako Ikerkuntzari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzen duen irailaren 5eko 17/2022 Legeak ikerketa sanitarioa sustatzeko erreferentzia-esparru bateratu bat eskaintzen dute, eta era eraginkorragoan funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Osasun Sailak, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzaren bitartez, ikerketa sustatzen du, helburu hauek, besteak beste, aintzat hartuta: sistema sanitarioaren premiei erantzuteko orientazioa; sistema sanitarioan bertan zein beste entitate batzuekin beharrezkoa den lankidetzan aritzea I+G+B proiektuak sortzeko eta garatzeko; horrela pertsonen onurari laguntzen zaio, ikerketaren eta berrikuntzaren emaitzak aplikatzen baitira. 2022-2025 aldirako osasun-arloko ikerketa eta berrikuntza Estrategian jasotzen den moduan, datozen urteetan ardatz estrategiko nagusi hauek hartu behar dira kontuan: koordinazioa —BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren gidaritzapean, BIOARABA, BIOBIZKAIA, BIOGIPUZKOA eta BIOSISTEMAK ikerketa-institutuen zentro nagusi gisa—, espezializazioa, talentua, nazioartekotzea eta baliabideak.

1.4.- Profesionalak

Kalitatezko zerbitzua ematen jarraitzeko estrategiarik onena, instalazio onak izateaz gain eta teknologiaren arloan azkena izateaz gain, profesional gaituak eta konprometituak edukitzea. Osasun-zerbitzuen oinarria pertsonentzat eta pertsonekin jarduten duten pertsonak dira. Horregatik, profesionalak dira EAEko sistema sanitario publikoaren kapital nagusia.

Profesional horien konpromisoa, parte-hartzea eta lidergo partekatua —erabakiak hartzeko garaian dutena— funtsezkoak dira sistema publikoak berak iraun dezan. Eusko Jaurlaritzak lan egingo du areago integratzeko profesionalak, parte-hartzea, berrikuntza eta hobekuntza etengabea sustatuz, sistema emaitzak lortzera bideratuz, betiere elkarriketaren eta akordioak lortzearen aldeko filosofia goiburu eta langileen, haien ordezkarien eta kudeatzaileen erantzunkidetasunarekin.

Arlo horretan aurreikusitako jarduketan artean dago etengabeko prestakuntzarako eta ezagutzaren kudeaketarako sarbidea ematea. Horretarako, programak emango zaizkie eta ikastaroak eskaini eta finantzatu zaizkie; hori guztia, osasungintzako profesionalen eta osasungintzako ez direnen garapen profesionala sustatzeko eta kualifikazio onena bermatzeko.

Adierazitako helburua lortzeko bidean aurrera egiteko, Osasun Sailak dirulaguntza lerro batzuk garatu nahi ditu urteko deialdien bidez:

- Osasun-arloko profesionalen prestakuntzarako bekak eta laguntzak.

- Osasun-arloan aritzen diren irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarteentzako laguntzak, etengabeko prestakuntza-jarduerak antola ditzaten osasuneko profesionalentzat.
- EAEko Osasun Zientzietako espezialitateetan egoiliar-aldian diharduten profesionalen kanpo-txandaketetarako laguntzak.

Sailak baditu beste dirulaguntza-lerro batzuk ere helburu horretarako: MGAIP (Mediku Gaixoaren Atentzio Integraleko Plana), Erizaintzaren arloko Laguntza Integraleko Plana.

1.5- Farmazia-prestazioa

Sendagaien eta Osasun-produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen du farmazia-prestazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko otsailaren 26ko 29/2019 Dekretuak farmazia-prestazioaren kudeaketa-eredua aldatzen du.

Aita Menni erakundea izen bereko ospitalearen titularra da, eta ospitalea EAEko sistema sanitarioaren barnean dago, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin itundutako zentroa baita; ospitale horrek behar bezala baimendutako farmazia-zerbitzua du.

Aita Mennik kudeatutako egoitzek bere ospitaleko farmazia-zerbitzuari lotutako sendagai-biltegiak ezartzea erabaki dute, eta dagozkion lotura-hitzarmenak sinatu dituzte horretarako. Hitzarmen horietan, sendagai-biltegien kudeaketari buruzko konpromisoak eta baldintzak jasotzen dira, bai eta farmazia-arreta eta -prestazioarekin lotutako funtzioak ere, 29/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Aita Menni Ospitaleko Farmazia Zerbitzua arduratuko da Aita Mennik kudeatzen duen egoitza multzoko 100 plazei dagokien farmazia-prestazioaz; hain zuzen ere, ospitale horri atxikitako sendagai-biltegiak dituzte egoitzok. Beraz, sendagaien banaketa bermatuta egongo da horietan, sendagaiak finantzatzeko arau orokorren arabera, erabiltzaileen ekarpena barne, eta farmazia-arreta emango zaie egoiliarrei.

Sendagaiak banatzeko, erreferentziatzat hartuko da Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza guztietarako ezarri duen gida farmakoterapeutikoa, bat etorriz 29/2019 Dekretuak 6. artikulua d) apartatua farmazia-zerbitzuen eta sendagai-biltegien funtzionamendu-arau komunei buruz ezarritakoarekin.

Farmazia-arreta garatzeko, erreferentzia gisa hartuko da Osasun Sailak ezarritako Adinekoen Egoitzetako Arreta Farmazeutikorako Planean xedatzen dena.

2.- Planaren egokitasuna eta justifikazioa

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak bete egiten ditu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legeak (20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa) ezarritako baldintzak. Lege horren printzipio gidarietako batzuk honako hauek dira: publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Printzipio horien eta lege horretan bertan antolatzen diren tresna ugariaren helburua da zuzenean eragitea dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzen.

lido berean, dirulaguntzei buruz informazio gehiago egoteak aukera ematen du merkatuari eragin diezaioketen distortsioak eta interferentziak ezabatzeko, eta areagotu egiten da administrazio publikoen jardueren osagarritasuna eta koherentzia, gainjartzeak saihestez gain.

Jarraian jasotzen diren jarduketak, azalduta dauden partidekin finantzatzeko dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei dagozkien partida horiek, zehazki planaren iraupena osatzen duten urteetako bakoitzari dagokion ekitaldiko aurrekontuei. Haietako batzuetan, kasuan kasuko aurrekontu-aldaketak egin beharko dira, partidak plan horretan aurreikusitako jarduketan benetako finantzaketa-beharretara egokitzeko.

3.- Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak

- Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea
- Adikzioak prebenitzea eta artatzea, bai eta arriskuak eta kalteak gutxitzea ere.
- Ikerketa eta berrikuntza
- Profesionalak
- Farmazia-prestazioa

3.1.- OSASUNA SUSTATZEA ETA GAIXOTASUNAK PREBENITZEA

3.1.1.- GIB/hiesaren, sexu-transmisiozko infekzioen eta C hepatitisaren esparruko dirulaguntzak

3.1.1.1.- Helburuak

1.- Gizartean, oro har, GIBaren, C hepatitisaren eta sexu-transmisiozko infekzioen transmisioak prebenitzea, baina kolektibo kalteberenen artean bereziki; honako hauek, adibidez: gizonekin sexua duten gizonak, etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak eta prostituzioan dihardutenak.

2.- GIB infekzioaren, sexu-transmisiozko infekzioen eta C hepatitisaren diagnostiko goiztiarrak bultzatzea, diagnostiko-probak sustatuz.

3.- GIBarekin eta C hepatitisarekin bizi diren pertsonen laguntza ematea, euren bizi-kalitatea hobetuz eta oraindik ere pairatzen duten gizarte-estigma eta -bazterkeria gutxituz.

3.1.1.2.- Zer lortu nahi den

1.- Osasun Sailari jarduera hauetan laguntzea: sexu-transmisiozko infekzioak gutxitzea, GIB/hiesa eta C hepatitisaren prebenitzea eta kontrolatzea, bai eta gaixotasuna duten pertsonak artatzea ere.

2.- GIB/hiesaren, sexu-transmisiozko infekzioen eta C hepatitisaren arloan programak eta jarduerak sustatzea eta indartzea, betiere gizarte-sarean errotuta badaude edo errotzeko bidean badaude.

3.1.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, dirulaguntzen deialdia egin eta haiek ematekoa, hain zuzen, GIB/hiesaren, sexu-transmisiozko infekzioen eta C hepatitisaren prebentzioan eta kontrolean diharduten eta administrazioak bestela haiengana heltzerik ez duen biztanle bereziki kalteberengana heltzen diren irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko entitateei zuzenduta.

Hona hemen lehenetsiko diren proiektuak: gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonen taldeei zuzendutakoak, talde kalteberei zuzendutakoak —esaterako, etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak eta prostituzioan dihardutenak— eta diagnostiko goiztiarreko proiektuak.

3.1.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

3.1.1.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.1.2.- Tokiko eremuan osasuna sustatzeko dirulaguntza

3.1.2.1.- Helburuak

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren partaidetza eta ahalduntzea indartzea.
- 2.- Erakundeen eta eragileen arteko lana optimizatzea, sinergiak sortzea eta aliantzak jostea osasuneko ekintza komunitarioa garatzeko.

3.1.2.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak tokiko eremuan osasuna sustatzearen alde egiten du, herritarren osasun-egoera hobetzeko, eta dirulaguntza horiek apustu horren barruan sartzen dira.

3.1.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuak agindu bat onartzea, osasuna tokiko eremuan sustatzeko laguntzen deialdiarena.

Hauek finantzatzeko dira:

- a) Ekintza komunitarioaren bitartez, osasuna tokian-tokian sustatzeko proiektuak garatzea helburu duten jarduketak.

3.1.2.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

3.1.2.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.1.3.- Gaixotasunen bat dutenen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako laguntzak

3.1.3.1.- Helburuak

- 1.- Gaixotasunen bat dutenek eta haien familiek gaixotasuna eta tratamendua hobeto ezagutzen laguntzea.
- 2.- Gaixotasunen bat dutenek beren gaixotasuna maneiatzen duten gaikuntza sendotzea, bai eta patologia bera dutenen arteko elkar-laguntza indartzea ere.
- 3.- Bizi-kalitatea hobetzeko jokabide osasungarriak sustatzea, orobat, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

3.1.3.2.- Zer lortu nahi den

Elkartzeko, komunikatzeko eta laguntza emateko guneak dira elkarte horiek, gaixotasunen bat dutenentzat nahiz haien familientzat. Osasun Sailak bereziki preziatzen du entitate horiek gaixotasunen bat dutenen eta haien senideen osasun fisikoaren, psikologikoaren eta sozialaren alde egiten duten ekarpena, hainbat alorretan islatzen dena, hala nola: gaixotasunen errealitate sozial eta afektiboarekiko zuzeneko kontaktua, eta zerbitzu- eta autolaguntza-programen bidezko zuzeneko asistentzia eta laguntza enpatikoa.

Horregatik, eta Osasun Planaren 2. lehentasuneko arloaren ildotik (gaixorik dauden pertsonak), zenbait patologia (minbizia, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, arazo nutrizionalak, arazo neurodegeneratiboak eta neuromuskularrak, gaixotasun psikikoak eta abar) dituzten pertsonen lagundu nahi zaie, sendatzeko, errehabilitatzeko eta ondoeza arintzeko helburua duten sistema sanitarioaren ekintzekin .

Halaber, erabiltzaileen eta haien senideen parte-hartzea eta ahalduntzea sustatu nahi da, eta sistema sanitarioarekin harreman erantzunkidetasunezkoa izan dezaten.

3.1.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, EAEko gaixotasunen bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzen deialdia egiteko.

Helburu hauek dituzten jarduerak lehenetsiko dira:

- a) Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboetara eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzea, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta autonomia areagotzeko.
- b) Gaixoei laguntasuna ematea eta haien gizarte- eta osasun-premiak bideratzea; jomuga izanik osasuna zaintzea eta sustatzea eta erkidegoa indartzea.
- c) Gaixoei eta haien familiek gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta osasun-arloko jokabide egokienei buruz duten ezagutza eta informazioa sakontzea.
- d) Gaixotasunen bat dutenek osasunaren aldetik bestetik dituzten desberdintasunak gutxitzea eta genero-ikuspegia erantzea.

3.1.3.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

3.1.3.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.1.4.- Elkarte eta kooperatibentzako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa gutxitzeko parte-hartze bidezko proiektuetarako (mugikortasun aktiboa)

3.1.4.1.- Helburuak

1.- Ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa gutxitzeko parte-hartze bidezko proiektuetan laguntzea, ikasleek osasun hobea eta autonomia handiagoa izan dezaten egiten baitira.

3.1.4.2.- Zer lortu nahi den

1. Osasun Planaren helburuak betetzen laguntzea, bereziki haur-osasuna sustatzeko eta ingurune osasungarriak sortzeko xede orokorre dagokienez.

2. Ikasleei bizimodu aktiboagoa eta ez hain sedentarioa izaten laguntzea, osasun-onura argiak lortzeko. Orobat, ikasleen autonomia areagotzea eta espazio publikoan segurtasun eta autonomia handiagoz mugitu ahal izan daitezen sustatzea. Horretarako, mugikortasun jasangarriko jarraibideak ikasiko dituzte.
3. Familiak umeen ongizatea zaintzen duen gizarte-sare batean sartzea, konfiantza- eta segurtasun-sentipena lortuz, bai eta lana eta familia hobeto bateratzea ere.
4. Komunikazio-loturak sortzea ikastetxeen eta tokiko administrazioaren artean, etorkizunean lankidetzan aritzen laguntzeko.
5. Osasunari, mugikortasunari eta jasangarritasunari buruzko edukiak bideratzea eskola-curriculumean.
6. Gure laguntza ematea EAEko obesitatea prebenitzeko strategiaren helburuetan (SANO), batik bat eskola-inguruneko eta familia-inguruneko helburu berariazkoetan.

3.1.4.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, elkarte eta kooperatiben artean laguntza-deialdi bat egiteko, EAEko ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentariismoa gutxitzeko ekintzak garatu ditzaten.

Interesgarritzat joko dira alderdi hauek:

- a) Partaidetza-proiektuak gauzatzea eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko, hiri-espazioek mugikortasun aktibo eta segururako eskaintzen dituzten aukerak baliatzera bideratuak.
- b) Partaidetza-proiektuak garatzea, ikastetxeetako jolaslekuak dinamizatu eta jolas-aukerak, ariketa fisikoa egin ahal izatea eta pertsona arteko harremanak sustatuko dituzten eremu bihurtzeko, bai eskola-orduetan bai eskola-orduetatik kanpo, kultura-, etnia-, adin-, sexu- eta gaitasun-aniztasuna aintzat harturik, eta ikasleen eta familien beharretara eta interesetara egokituta.
- c) Helburu honetarako jarduerak bultzatzea: jarduera fisikoa familian egin dadin sustatzea, hala nola mendian ibiltzea, edo bizikletan, edo patinetean; edo familian jolasteko jarduerak, besteak beste.

3.1.4.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

3.1.4.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.1.5.- Agindutako tratamendu medikoak betetzeko laguntzak.

3.1.5.1.- Helburua

1.- Euskadiko Sistema Sanitarioko langileek agindutako tratamendu medikoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketenak, gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonak bete ditzaten erraztea.

3.1.5.2.- Zer lortu nahi den

1. Ekitatearen eta erantzukizunaren helburuak lortzen laguntzea, bereziki, osasun-arloko desberdintasun sozialei aurre egiten eta haiek minimizatzen lagunduz.
2. Mekanismoak garatzea, mediku-tratamenduan egonik, haien muga ekonomikoak edo gizarte-bazterketako egoera direla-eta mediku-aginduak behar bezala ez betetzeko edo tratamendua uzteko arriskua duten pertsonen tratamendua jasotzen jarrai dezaten laguntzeko.

3.1.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, agindutako tratamendu medikoak betetzeko laguntzetarako deialdia egin eta arautzekoa.

Zehazkiago, pertsona hauek izango dira laguntzen hartzaileak:

- a) Osasun-babeserako eta arreta sanitarioak eskubidearen titularrak, baldin eta Gizarte Segurantzako pentsiodunak badira, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta EAEko sistema sanitarioak eman eta bermatzen duen osasun-txartel indibidualaren titularrak badira.
- b) Osasun-babeserako eta arreta sanitarioak eskubidearen titularrak, baldin eta legezko langabezia-egoeran badaude, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta EAEko sistema sanitarioak eman eta bermatzen duen osasun-txartel indibidualaren titularrak badira.
- c) Osasun-babeserako eta arreta sanitarioak eskubidearen titularrak, baldin eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen badute beren laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren modalitatean, eta EAEko sistema sanitarioak eman eta bermatzen duen osasun-txartel indibidualaren titularrak badira.
- d) Osasun-babeserako eta arreta sanitarioak eskubidearen titularren pertsona onuradunak —aurreko hiru apartatuetan aipaturiko titularrenak— baldin eta EAEko sistema sanitarioak eman eta bermatzen duen osasun-txartel indibidualaren titularrak badira.
- e) Espainian erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerriarrak, baldin eta osasun-babeserako eta arreta sanitarioak eskubidea badute Espainiako nazionalitatea dutenen baldintza berberetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskubide hori aitortzeko emandako egiaztagiria badute.

3.1.5.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

3.1.5.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memorieta ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.2.- ADIKZIOAK PREBENITZEA ETA ARTATZEA, BAI ETA ARRISKUAK ETA KALTEAK GUTXITZEA ERE.

3.2.1.- Laguntza ekonomikoak talde teknikoak sortu eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioarako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko proiektuak gauzatzeko, bai eta jarduketa-esparru horietan ohitura osasungarriak sustatzeko ere.

3.2.1.1.- Helburuak

- Tokiko talde teknikoak sortu eta mantentzea, esku hartzeko oinarrizko antolamendu-egitura gisa, adikzioen prebentzio komunitarioari lotutako politika eraginkortasunez gauzatzea lortzeko.

- Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko eta jokabide osasungarriak sustatzeko programak eta esku-hartzeak landu eta garatzea. Programa horiek adikzioen edo droga-mendekotasunen alorreko tokiko planetan egon behar dute, onartuta edo prestatzeko prozesuan (udalek banaka edo mankomunatuta prestatu eta garatzen dituzte), eta jarduketa egituratu eta koordinatuen multzo ordenatua dira.

- Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek proiektuak egitea eta garatzea, adikzioen arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko, bai eta jarduketa-eremu horretan jokabide osasungarriak sustatzeko ere.

3.2.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasun integrala (fisikoa, mentala eta harremanetakoa) zaintze aldera, erakundearteko koordinazioa eta hirugarren sektorearekin lankidetzan aritzea oinarri hartuta, hauek sustatu nahi dira: balio positiboak eta prosozialak osasun publikoaren arloan, ohitura osasungarriak adikzioen esparruan eta osasun-heziketa. Hori guztia, adikzioekin lotutako arrisku-faktoreak eta kalteak murrizteko.

Udal-talde teknikoei gaikuntza profesional egokia ematea, prebentzio komunitarioko politika eraginkortasunez gauzatu dezaten, eta irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuek droga-mendekotasunak eta jokabide-adikzioak prebenitzeko garatutako programak eta ekimenak bultzatu eta mantentzea.

Jarduketak, programak eta proiektuak indarrean den Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen Planaren jarduketa-ardatz, helburu eta eremuetan txertatzea.

Adikzioen eremuko premia berriak azaltzea, eta, behar horiek kontuan hartuta, horiei erantzungo dieten jarduketa, programa eta proiektu berriak bultzatzea.

Jarduketak, proiektuak eta programak hobetzen laguntzea adikzioen arloan, eta, horretarako, diseinu- eta sistematizazio-prozedurei jarraitzea.

3.2.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, Osasun Sailaren estrategia zertzen den eta haren plangintza-tresna nagusietan ezartzen diren lerro estrategikoetara eta ekintzetara egokitzen diren laguntzetarako deialdia egiteko eta laguntza horiek emateko.

Hiru dirulaguntza-lerro egongo dira:

- adikzioak prebenitzeko udal-taldeak sortzeko eta talde horiei eusteko;
- adikzioen prebentzio komunitarioko udal-programa espezifikoak garatzeko;
- ekimen sozialeko erakundeek arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko, bai eta jarduketa-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko ere.

3.2.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.2.1.5.- Adierazleak:

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.2.2.- Dirulaguntza izendunak: Adikzioak

3.2.2.1.- Gizakia fundazio zibilarentzako dirulaguntza, Bilboko «ANDÉN 1» adikzioak artatzeko zentro soziosanitarioari eusteko.

3.2.2.1.1.- Helburuak

1. Zentroa erabiltzen dutenen bizi-baldintza sanitarioak eta sozialak hobetzea.
2. Arrisku handiko drogak kontsumitzen dituztenen kalteberatasun-egoerari eta bazterketa sozialari lotutako kalteak gutxitzea.
3. Zentroaren erabiltzaileei informazioa, orientazioa eta aholkua ematea, hala nola osasun-heziketarako jarduerak, bizi-baldintza osasungarriak eta nork bere osasuna zaintzea sustatzeko jarduerak eta beste administrazio publiko batzuekin koordinatutako arreta sozialeko mekanismoak eskaintzea, eta Eusko Jaurlaritzaren informazio, zaintza epidemiologiko eta ikerkuntzako sistemekin lankidetzan aritzea, batik bat, Osasunaren Euskal Behatokiarekin eta Adikzioen Behatokiarekin.

3.2.2.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, baliabide-egitura jarraitu bat sustatu nahi da, bazterketa-egoera larrian egonik adikzioen bat dutenen arriskuak murrizteko eta kalteak arintzeko, bizi-kalitatea hobetzeko, bai eta adikzio-arazoak dituzten edo izan dituzten pertsonak gizarteratzeko ere.

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gizakia fundazio zibilaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, Bilboko «Andén 1» adikzioak artatzeko zentro soziosanitarioari eusteko.

3.2.2.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.2.2.1.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

Zenbat pertsona artatu diren eta zenbat esku-hartze egin diren zentroaren jarduketalarroetan.

3.2.2.2.- Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordearentzako dirulaguntza, kalteak gutxitzeko programak kudeatzeko droga-mendekoentzako eguneko zentroan.

3.2.2.2.1.- Helburuak

1. Kalteak murrizteko programak garatzea Bizkaiko Hiesaren Aurkako Herritar Batzordeak kudeatzen duen droga-mendekoentzako eguneko zentroan.
2. Osasun-arreta eta laguntza ematea eta drogen kontsumo arazotsuari eta bazterketa sozialeko egoera bati lotutako kalteak gutxitzeko beste dispositibo batzuekin lankidetzan aritzea.

3.2.2.2.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, adikzio-arazo kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Droga-mendekotasuna dutenentzako eguneko zentro horretan kalteak gutxitzeko programak kudeatzea finantzatuko da.

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordearen arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, droga-mendekoeentzako eguneko zentroan kalteak gutxitzeko programak kudeatzeko.

3.2.2.2.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAeko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.2.2.2.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAeko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

Zenbat pertsona artatu diren eta zenbat esku-hartze egin diren zentroaren jarduketalerroetan.

3.2.2.3.- Bilboko Elizbarrutiko Caritasentzako dirulaguntza, HONTZA larrialdiko eta gaueko harrerako zentroari eusteko

3.2.2.3.1.- Helburuak

- «Hontza» larrialdiko eta gaueko harrerako zentroari eustea.
- Egoera okerreanean dauden droga-mendekoei arreta soziosanitarioa ematea.
- Zentroko erabiltzaileen premiarik oinarrizkoenak asetzeko jarduerak garatzea.
- Droga-kontsumoaren ondorio kaltegarriak arintzea. Horretarako, adikzio-arazoak dituzten pertsonen arriskuak gutxituko dira, kalteak murriztu, eta osasun-baldintza orokorrak hobetu.

3.2.2.3.2.-Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, adikzio-arazo kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea larrialdiko eta gaueko harrerarako zentro baten bitartez. Egoera okerreanean dauden droga-mendekoei laguntza soziosanitarioa ematen die zentro horrek.

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Bilboko Elizbarrutiko Caritasen arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, «Hontza» larrialdiko eta gaueko harrerako zentroari eusteko.

3.2.2.3.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.2.2.3.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

Zenbat pertsona artatu diren eta zenbat esku-hartze egin diren zentroaren jarduketalarroetan.

3.2.2.4.- Deustuko Unibertsitatearentzako dirulaguntza, droga-mendekotasuneko prestakuntza- eta ikerkuntza-jarduerak egin ditzan.

3.2.2.4.1.- Helburuak

1. Adikzioekin lotuta gizartean, arlo sanitarioan eta ekonomian sortzen diren arazoekin zerikusia duten azterlanak eta ikerketak egitea.
2. Adikzioekin lotutako prestakuntza-jarduerak antolatzea eta egitea.
3. Adikzioen arloko ezagutza zabaltzea.

3.2.2.4.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia zertzen den tresna nagusietan ezarritako edukia betetze aldera:

- Unibertsitatearekin elkarlanean aritzea, adikzioen gaian ikerketako, prestakuntzako eta dibulgazioko jarduerak bultzatzeko, bereziki profesionalentzat, arduradun publikoentzat, ekimen sozialeko entitateentzat eta unibertsitateko ikasleentzat.
- Prebentzioko, laguntzako eta gizarteratzeko programak hobeto ebaluatzen laguntzea.

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.4.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza) eta Deustuko Unibertsitatearen (IDD) arteko lankidetzaz-hitzarmenaren eranskina sinatzea.

3.2.2.4.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatzeko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.2.2.4.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memorieta ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

Prestakuntza-jardueretan parte hartu dutenen kopurua, egingo diren jardunaldien kopurua, eta dokumentu eta argitalpenen zerrenda.

3.2.2.5.- Dirulaguntza Eguía-Careaga Fundazioarentzat (Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa-SIIS), droga-mendekotasunarekin zerikusia duten gaiak ikertzeko eta ezagutzak zabaltzeko.

3.2.2.5.1.- Helburuak

1. Droga-mendekotasunekin zerikusia duten gaiak ikertzeko eta ezagutarazteko jarduerak garatzea.
2. Euskadiko Droga-mendekotasunen Dokumentazio Zentroa kudeatzea:
3. Drogomedia webgunea garatu eta eguneratzea, eta bai haren eguneroko buletin elektronikoa, bai buletin monografikoak egitea.

3.2.2.5.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, arloan entzute handia duen entitate batekin lankidetzan aritzea, adikzioen gain ikerketako, prestakuntzako eta difusioko jarduerak bultzatzeko, bereziki profesionalentzat, arduradun publikoentzat, ekimen sozialeko entitateentzat eta komunikabideentzat, bai eta, oro har, gizarte osoarentzat ere.

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza) eta SIIS - Eguia-Careaga Fundazioaren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea.

3.2.2.5.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAeko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.2.2.5.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAeko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

Erregistratuko diren agiri-erreferentzien kopurua, erantzungo zaien kontsulten kopurua eta argitaratuko diren dokumentuen eta txostenen zerrenda.

3.3.- IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

3.3.1.- Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektu eta jardueretarako laguntzak

3.3.1.1.- Helburuak

2022-2025 aldirako Ikerketa eta Berrikuntzako Plan Estrategikoaren esparruan, I+G jarduerak eta proiektuak finantzatu nahi dira, zenbait arlotan eta modalitatetan, ezagutza sortu, transferitu edo aplikatzen lagunduz, honako xede hauekin: gaixotasunen prebentzioa, diagnosia edo tratamendua hobetzea; osasun publikoa sustatzea eta osasun-zerbitzuak hobetzea; eta sistemak erronka sozioekonomikoei erantzuteko daukan gaitasuna indartzea. Eta, horretarako, eremu batzuk bereiztea erabaki da, besteak beste: «ikerketa sanitarioa sustatzea», «ikerketa sanitarioa areagotzea», «osasun-arloko ikerketa estrategikoa indartzea» edo «ekintza osagarri bereziki interesgarriak».

3.3.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasuneko ikerketa- eta garapen-jarduera eta -proiektuentzako laguntzen bidez, Eusko Jaurlaritzak, azken finean, pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia hobetu nahi ditu, bai eta garapen sozioekonomikoari lagundu ere, osasun-arreta eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatuz.

Zehazkiago, laguntzekin hauxe lortu nahi da:

- ZTPB 2030en helburuei eta osasun pertsonalizatuaren esparruan laguntzea.
- I+Gn oinarritutako Osasun Plan berriaren helburuei laguntzea.
- Ikerketa translazionalaren ikuspegia indartzea, baita sistema sanitarioan aplikatu ahal izateko emaitza erabilgarriak lortzea ere, transferentzia teknologikorako aukera gisa.
- Programa, ekimen edo plan sanitarioetan jasotako edo haiei loturiko I+G+Bko helburuak betetzea.

3.3.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuak laguntzeko deialdia egitekoa.

3.3.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

3.3.1.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.- Dirulaguntza izendunak: Ikerketa eta berrikuntza.

3.3.2.1.- Biosistemak — Osasun Sistemen Ikerketa Institutua (lehengo Kronikgune) irabazi-asmorik gabeko elkartearentzako dirulaguntza izenduna

Biosistemak Osasun Sistemen Ikerketa Institutuari ematen zaion laguntzaren helburua da zentroak bere helburuak betetzeko egiten dituen jarduerak erraztea —ikerketa sustatzea eta egitea osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan—.

3.3.2.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasun-sistemen eta -zerbitzuen gaineko ikerketari ekiteko plan estrategikoa garatzea, arlo hauetan: Osasun-politiken ebaluazioa; prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa; erabakiak hartzeko laguntza; eta antolaketa-ereduen garapena eta ebaluazioa; hori guztia, zahartze aktiboarekin eta osasuntsuarekin lotuta. Erakundearen sorrerako helburuak garatzeko proiektuak prestatu, kudeatu eta koordinatzeko jardueretarako laguntza ere jasotzen da. Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresnak betetze aldera, Osasun-arloan Ikertzeko eta Berritzeko politikak barne.

3.3.2.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.1.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.2.- Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko elkar-tearentzako dirulaguntza izenduna. 4114 programa

3.3.2.2.1.- Helburuak

Bioaraba Osasun Ikerketa Institutuari ematen zaion laguntzaren helburua da zentroak egiten dituen jardueretan laguntzea, helburu hauek bete ditzan:

- a) Biomedikuntzaren, epidemiologiaren, osasun publikoaren eta zerbitzu sanitarioen arloetan ikerketa sustatzea.
- b) Sistema sanitarioaren programei eta politikei oinarri zientifikoa ematea.
- c) Ikerketa translazionala lehentasunez bultzatzea. Halakotzat hartzen da ezagutza zientifikoak praktika klinikora azkarrago eramateko egiten den ikerketa, nazioarteko gomendioei jarraikiz.
- d) Prestakuntza-jarduerak egitea.

3.3.2.2.2.- Zer lortu nahi den

Institutuaren plan estrategikoa garatzea, zeinak ikerketa- eta berrikuntza-arloko zazpi ardatz baitauzka: Kardiobaskularra, arnasketakoa eta metabolikoa; garapen farmakologikoa; gaixotasun infektzioak, inflamatorioak eta immunomediatoak; osasun-arloko garapen berriak; diagnostika eta terapeutika onkologikoa; neurozientziak; prebentzioa, osasuna sustatzea eta zaintzea; eta ugalketa eta ama-haurren osasuna.

Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresnak betetze aldera, batik bat Osasun-arloan Ikertzeko eta Berritzeko politikei dagokienez.

3.3.2.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.2.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.2.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memorieta ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.3.- Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko elkartearentzako dirulaguntza izenduna. 4114 Programa (lehengo Biocruces Bizkaia)

3.3.2.3.1.- Helburuak

Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutuari ematen zaion laguntzaren helburua da zentroak egiten dituen jardueretan laguntzea, helburu hauek bete ditzan:

- a. Biomedikuntzaren, epidemiologiaren, osasun publikoaren eta zerbitzu sanitarioen arloetan ikerketa sustatzea.
- b. Sistema sanitarioaren programei eta politikei oinarri zientifikoa ematea.
- c. Ikerketa translazionala lehentasunez bultzatzea. Halakotzat hartzen da ezagutza zientifikoak praktika klinikora azkarrago eramateko egiten den ikerketa, nazioarteko gomendioei jarraikiz.
- d. Prestakuntza-jarduerak egitea.

3.3.2.3.2.- Zer lortu nahi den

Institutuaren 2023-2027 plan estrategikoa garatzea, zeinak zazpi ikerketa-arlo baitauzka: Lehen mailako arreta, prebentzioa, zahartzea eta gaixotasun kronikoak; minbizia; endokrinologia, metabolismoa, elikadura eta giltzurrunetako gaixotasunak; gaixotasun autoimmuneak, hanturazkoak eta infekziosoak; nerbio-sistemako gaixotasunak; kirurgia eta osasun teknologietako berrikuntza; eta ama-hurren osasuna eta laguntza bidezko ugalketa. Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresnak betetze aldera, batik bat Osasun-arloan Ikertzeko eta Berritzeko politikei dagokienez.

3.3.2.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.3.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.3.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.4.- Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko elkartearentzako dirulaguntza izenduna. 4114 programa (lehenengo Biodonostia)

3.3.2.4.1.- Helburuak

Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutuari ematen zaion laguntzaren helburua da zentroak egiten dituen jardueretan laguntzea, helburu hauek bete ditzan:

- a. Biomedikuntzaren, epidemiologiaren, osasun publikoaren eta zerbitzu sanitarioen arloetan ikerketa sustatzea.
- b. Sistema sanitarioaren programei eta politikei oinarri zientifikoa ematea.
- c. Ikerketa translazionala lehentasunez bultzatzea. Halakotzat hartzen da ezagutza zientifikoak praktika klinikora azkarrago eramateko egiten den ikerketa, nazioarteko gomendioei jarraikiz.
- d. Prestakuntza-jarduerak egitea.

3.3.2.4.2.- Zer lortu nahi den

Institutuaren 2021-2025 aldirako plan estrategikoa garatzea, zeinak zazpi ikerketa arlo bertikal eta zeharkako hiru baititu: neurozientziak; gaixotasun hepatikoak eta gastrointestinalak; gaixotasun infektziosoak; onkologia; epidemiologia eta osasun publikoa; bioingeniaritza eta gaixotasun sistemikoen arloa; zahartzea; doitasunezko medikuntza; eta berrikuntza. Eta horren guztiaren lagun, lau ekintza-ardatz: ikerketa translazionala; berrikuntza eta medikuntza teknologikoa; nazioartekotzea; kudeaketa eta azpiegiturak.

Osasun Sailaren estrategia zertzen den plangintza-tresnak betetze aldera, batik bat Osasun-arloan Ikertzeko eta Berritzeko politikei dagokienez.

3.3.2.4.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.4.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatzeko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.4.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.5.- Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko elkartearentzako dirulaguntza izenduna. 5414 programa (Medtech ekimena)

3.3.2.5.1.- Helburuak

Jarduera batzuetan laguntzeko ematen zaio dirulaguntza Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuari, hain zuzen ere lau arlotan, laurak ere EAEko sistema sanitarioan gailu eta teknologia sanitarioak probatu eta baliozkotzearekin lotura dutenak:

- Teknologia eta osasunaren arloan ideiak eta proiektuak batera miazteko fasean dauden hasierako jarduerak, eta aholkularitza-jarduerak.
- Gailu eta teknologia sanitarioak baliozkotzea edo erakustea.
- Probak egiteko behar den ekipamendua eskuratzea.
- Antolaketa, koordinazioa eta zabalkundea.

3.3.2.5.2.- Zer lortu nahi den

Baliabide honen bidez, sistema sanitarioak proba-banku eta bazkide gisa duen gaitasuna sustatzen jarraitu nahi da; gaitasuna, hain zuzen ere, produktuaren garapenaren edozein fasetan probak eta testak egiteko. Bestalde, produktuaren garapen hori bizkortu nahi da TRLetan zehar (heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko sigletan).

3.3.2.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.5.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatzeko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.5.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.6.- Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko elkartearentzako dirulaguntza izenduna. 5414 programa (lehengo Biocruces Bizkaia) (Medtech ekimena)

3.3.2.6.1.- Helburuak

Jarduera batzuetan laguntzeko ematen zaio dirulaguntza Biobizkaia Osasun Ikerketako Institutuari, hain zuzen ere lau arlotan, laurak ere EAEko sistema sanitarioan gailu eta teknologia sanitarioak probatu eta baliozkotzearekin lotura dutenak:

- Teknologia eta osasunaren arloan ideiak eta proiektuak batera miazteko fasean dauden hasierako jarduerak, eta aholkularitza-jarduerak.
- Gailu eta teknologia sanitarioak baliozkotzea edo erakustea.
- Probak egiteko behar den ekipamendua eskuratzea.
- Antolaketa, koordinazioa eta zabalkundea.

3.3.2.6.2.- Zer lortu nahi den

Baliabide honen bidez, sistema sanitarioak proba-banku eta bazkide gisa duen gaitasuna sustatzen jarraitu nahi da; gaitasuna, hain zuzen ere, produktuaren garapenaren edozein fasetan probak eta testak egiteko. Bestalde, produktuaren garapen hori bizkortu nahi da TRLetan zehar (heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko sigletan).

3.3.2.6.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.6.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.6.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.2.7.- Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua irabazi-asmorik gabeko elkar-tearentzako dirulaguntza izenduna. 5414 Programa (lehenengo Biodonostia) (Medtech ekimena)

3.3.2.7.1.- Helburuak

Jarduera batzuetan laguntzeko ematen zaio laguntza Biogipuzkoa Osasun Ikerketako Institutuari, hain zuzen ere lau arlotan, laurak ere EAEko sistema sanitarioan gailu eta teknologia sanitarioak probatu eta baliozkotzearekin lotura dutenak:

- Teknologia eta osasunaren arloan ideiak eta proiektuak batera miazteko fasean dauden hasierako jarduerak, eta aholkularitza-jarduerak.
- Gailu eta teknologia sanitarioak baliozkotzea edo erakustea.
- Probak egiteko behar den ekipamendua eskuratzea.
- Antolaketa, koordinazioa eta zabalkundea.

3.3.2.7.2.- Zer lortu nahi den

Baliabide honen bidez, sistema sanitarioak proba-banku eta bazkide gisa duen gaitasuna sustatzen jarraitu nahi da; gaitasuna, hain zuzen ere, produktuaren garapenaren edozein fasetan probak eta testak egiteko. Bestalde, produktuaren garapen hori bizkortu nahi da TRLetan zehar (heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko sigletan).

3.3.2.7.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea.

3.3.2.7.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.3.2.7.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.3- BIOEF - Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren laguntzak, minbiziaren gaineko ikerketa-proiektuetarako.

3.3.3.1.- Helburuak

Minbiziaren gaineko ikerkuntza biomedikoaren proiektuak bultzatzea.

3.3.3.2.- Zer lortu nahi den

Minbiziaren gaineko ikerketa-proiektuetarako laguntzen bitartez (BIOEFek kudeatuak), aurrera egin nahi da gaixotasunarekin zerikusia duten zenbait alderdi aztertzen.

3.3.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, BIOEF Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioak minbiziaren gaineko ikerketa-proiektuetarako emango dituen laguntzen deialdia egitekoa.

3.3.3.4.- Finantzaketa

BIOEFek jasotzen dituen funtsekin finantzatuko da, hain zuzen, EITBk eta BIOEFek EitB maratoiaren harira sinatutako lankidetzaren hitzarmena dela eta jasotzen dituen funtsekin. Deialdiaren zuzkidura kasuan kasuko ekitaldian biltzen diren funtsen arabera zehaztuko da, aipatu hitzarmen horretan xedatutakoarekin bat.

3.3.3.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.4.- BIOEF - Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren laguntzak, I+G+B jarduerarako.

3.3.4.1.- Helburuak

Ikerketa sanitarioa bultzatzea, osasunean ikertzeko eta berritzeko 2022-2025 estrategian zehaztutako lehentasun-lerroei baliabideak esleitzuz.

3.3.4.2.- Zer lortu nahi den

Ikerketa sanitarioari laguntzak emanez, kanpoko finantzaketaren bolumena planifikatu eta egokitzeko behar diren baliabideak areagotu nahi dira; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko sistema sanitarioaren I+G+B delakoa finantzatzeko esparru eraginkorra lortzen dela bermatu beharko du kanpo finantzaketa horrek.

3.3.4.3.- Ekintza-plana

Fundazioak «I+G+B finantzatzeko laguntza» du helburu, beste I+G+B laguntza batzuen kudeaketaren bidez. Esparru horren barruan sartzen dira laguntzak, eta helburu horietarako kanpoko finantzaketa lotua eskuratu beharko da lehenengo. Finantzaketa lortuz gero, Osasun sailburuaren agindu bat onartu beharko da, osasunean ikertzeko eta berritzeko 2022-2025 estrategiarekin bat datozen lehentasunezko eremuetarako BIOEF - Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioak emango dituen laguntzetarako deialdia egiteko.

3.3.4.4.- Finantzaketa

BIOEFek helburu horietarako sinatutako lankidetzak-hitzarmenen arabera jasotako funtsekin finantzatuko da.

3.3.4.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memorieta ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.3.5.- BIOEF - Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren laguntzak, Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuetarako.

3.3.5.1.- Helburuak

Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuak bultzatzea, 6. eta 9. TRLen arteko jardueren bitartez (TRL: heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko sigletan).

3.3.5.2.- Zer lortu nahi den

Laguntza honen bidez, enpresen produktuak/teknologiak/zerbitzuak garatzeko prozesua lagundu eta bizkortu nahi da; horretarako, haiek EAEko Sistema Sanitario Publikoan baliozkotu edo probatzeko aukera emango da. Lortu nahi da, batetik, enpresen eta osasuneko profesionalen arteko elkarreagineko ekimenak ahalbidetzea eta, bestetik, EAEko Sistema Sanitario Publikoak enpresa-ingurunerako proba-banku gisa funtzionatzeko erakutsitako gaitasuna sustatzea. I+G+b proiektuak finantzatuko dira, 6. eta 9. TRLen arteko jardueren bitartez (TRL: heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko sigletan).

3.3.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, BIOEF - Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioak Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuetarako emango dituen laguntzen deialdia egitekoa.

3.3.5.4.- Finantzaketa

Osasun Sailaren transferentziaren bidez jasoko ditu funtsak BIOEFek.

3.3.5.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memorieta ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.4.- PROFESIONALAK

3.4.1. EAEko osasungintzako profesionalak prestatzeko banakako laguntzak eta beka

3.4.1.1.- Helburuak

Prestakuntzarako sarbidea ematea, kualifikazio optimoa bermatzeko lanabesa den heinean, eta langileen garapen profesionala indartzea.

Berariaz, honako hauek indartu nahi dira:

- a) Estatuko unibertsitate-ikastegiek edo Osasun Ministerioaren mendeko osasun-institutuek, edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolek emandako graduondoko ikastaroetan parte hartzea; edo aipatutako erakundeek ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen graduondoko titulu propioen bat sortzen badute eta arlo hauetan gaitasun aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude:
 - Kudeaketa sanitarioa: kostu sanitarioen eta ospitale-kostuen kudeaketa eta kontrola, marketina, giza baliabideak, zerbitzu sanitarioen produktibitatea eta plangintza, kalitatearen kontrola, arreta soziosanitarioa, langile sanitarioen arriskuak, erakunde sanitarioen motak, kudeaketa sanitarioko politikak, plangintza estrategikoa, zerbitzu sanitarioen ikuskapena eta kudeaketaren tratamendu informatikoa.
 - Osasun publikoa: nabarmendu behar dira haurren obesitatearen eta elikadura-nahasmenduen prebentzioa; tresna metodologikoen ezarpena (estatistika eta epidemiologia), eta plangintza eta ebaluazioa (beharra, eskaintza eta eskaria, efikazia, eraginkortasuna, efizientzia eta ekitatea, adierazleak, gaixotasunen prebentzio- eta babes-estrategiak, eta osasunaren sustapena).
 - Zainketa aringarriak: alderdi kulturalak, sanitarioak, psikosozialak, legezkoak eta etikoak; zainketa aringarrietako zerbitzuen kudeaketa; ikerketa, sintomen kontrola eta erabakiak hartzea.
 - Familia- eta komunitate-medikuntza: horren garapena sustatu eta bultzatzea.
 - Integrazio asistentziala: zainketa sanitarioak antolatzea, pazienteen emaitzak hobetzea helburutzat hartuta, bereziki prozesu asistentzialak integratuz, Euskadiko Arreta Integratuaren Planean jasotakoaren arabera.
 - Suizidioa prebenitzeko estrategiak: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_prevenccion_suicidio/es_def/adjuntos/euskadin-suizidioa-prebenitzeko-estrategia.pdf
 - Euskadiko Onkologia Planaren ekintzak https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_oncologico_2018_2023/eu_def/adjuntos/euskadi-onkologia-plana-2018-2023.pdf
 - Gaixotasun neurodegeneratiboak: Alzheimer-en gaixotasuna, Parkinson-en gaixotasuna eta bestelako parkinsonismoak, alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA) eta esklerosi anizkoitza.

- Gaixotasun neuromuskularrak: Duchenne-ren muskulu-distrofia, Steinert-en gaixotasuna, muskulu-atrofia espinala eta miastenia larria.
 - Generoa eta osasuna: generoaren eta osasunaren arloko prestakuntza integrala, zeinak helburu hauek baititu: genero-ikuspegia txertatzea zerbitzu sanitarioetako jarduera asistentzian, plangintzan eta kudeaketan; arlo horretako ikerketa-proiektuak egin eta ebaluatzea; ezagutza zientifikoa handituko duten osasunaren eta generoaren arloko ikerketak proposatu eta garatzea, eta arlo sanitarioan genero-indarkeriako kasuak detektatu eta tratatzea.
 - Eutanasia
 - Gaixotasun kardiobaskularrak: kardiopatia iskemikoa eta iktusa.
 - Zahartzea eta kronikotasuna.
 - Bioetika.
- b) Atzerriko unibertsitateek emandako graduondoko ikastaroak egitea, a) modalitatean aipatutako arloetan gaitasun aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude.
- c) Atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan prestakuntza-egonaldiak parte hartzea, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak egiteko.

3.4.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren helburuetako bat da zerbitzu sanitarioen kalitatearen hobekuntza sustatzea, osasungintzako langileen prestakuntza areagotuta. Horregatik, Osasun Sailak epe ertain eta luzerako estrategia bat planteatu du, EAEko sistema sanitarioko langileek duten gaitasuna areagotu dezaten praktika profesionalean.

3.4.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea.

3.4.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatzeko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.4.1.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.4.2.- Osasun-arloan aritzen diren irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarteentzako laguntzak, etengabeko prestakuntza-jarduerak antola ditzaten osasuneko profesionalentzat.

3.4.2.1.- Helburuak

EAEko irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteek diruz laguntzea, osasun-arloko profesionalen prestakuntza eta eguneratze teknikoak eman diezaieten edo ikerketa sanitarioa susta dezaten.

3.4.2.2.- Zer lortu nahi den

Herritarrei arreta sanitario egokia ematea faktore askoren mende dago; horien artean, berebiziko garrantzia du osasungintzako profesionalen gaikuntzak, eta, horretarako, kalitatezko prestakuntza-prozesu bat behar da.

Osasungintzako profesionalen eskubidetzat eta betebehartzat hartzen da etengabeko prestakuntza (44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa), eta, gaur egun, jarduera ohiko eta beharrezkotzat hartzen dute arlo sanitarioko, hezkuntzako, elkartegintzako eta korporazio-arloko erakundeek eta profesionalak berek. Etengabe aldatzen ari direnez osasun- eta gaixotasun-prozesuen ezagutzak, prozesu horiek baldintzatzen dituzten alderdiak, eredu epidemiologikoak eta erabiltzen diren teknologien berrikuntzak, bai eta osasun-sistemen eta oro har gizarte-sistemen antolaketa ere, profesionalen gaitasunak betebehar etiko gisa mantendu eta etengabe hobetu behar dira, profesional horiek ahalik eta arreta onena eman diezaieten zerbitzatzen dituzten herritarrei. Etengabeko prestakuntza oso tresna ahalsua da helburu hori lortzeko.

Halaber, prestakuntza-jarduerak antolatuz, profesionalen arteko komunikazioa errazten duten topaguneak sustatzen dira, eta, hala, ezagutza zabaltzen dute, bilera zientifikoak, ikastaroak, jardunaldiak eta abar antolatuta.

Bestalde, Osasun Sailaren ustez, gaixotasunak dituzten pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko, onuragarria eta ezinbestekoa da laguntza ematea egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteei, prestakuntza eta eguneratze teknikoa eman diezaieten osasun-arloko profesionaleri edo ikerketa sanitarioa bultzatu dezaten.

3.4.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea.

3.4.2.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.4.2.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.4.3. EAEko Osasun Zientzietako espezialitateetan egoiliar-aldian diharduten profesionalen kanpo-txandaketetarako laguntzak.

3.4.3.1.- Helburuak

Pertsonal egoiarrari laguntzea Espainiako zein atzerriko egiaztatutako edo ospe handiko zentroetara mugi dadin, eta mugikortasun hori sustatzea, zentro horietan haren prestakuntza hobetzeko.

Aldi baterako lekualdatzeek eta egonaldi laburrek eragindako gastuen zati bat finantzatzea.

3.4.3.2.- Zer lortu nahi den

Laguntza-programa honen bidez, Osasun Sailak bi helburu hauek lortu nahi ditu:

1. EAEko pertsonal egoiarraren prestakuntza-programan elkarlanean jardutea, esperientzia eta gaitasun berriak bereganatu ahal izan ditzan Estatuko eta nazioarteko osasun-zentroetan, egoitzan ezarritako prestakuntza-ibilbidearen arabera jasotako prestakuntza osatzeko.
2. Talentua erakartzea eta atxikitzea EAEko sistema sanitarioan betetzen zailak diren plazetarako.

3.4.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea.

3.4.3.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.4.3.5.- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.4.4.- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren dirulaguntza izendunak

3.4.4.1.- Euskal Autonomia Erkideogoko Sendagileen Kontseiluarentzako dirulaguntza izenduna, EAEko MGAIP finantzatzeko.

3.4.4.1.1.- Helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Mediku Gaixoaren Atentzio Integraleko Programari laguntzea.

3.4.4.1.2.- Zer lortu nahi den

- Ahalik eta mediku gaixo gehieni laguntzea.
- Mediku gaixoen behar duten laguntza espezializatua jaso dezaten bermatzea.

- Profesionalak diren aldetik, haien errehabilitazioa bultzatzea.
- Medikuntza herritarren osasunerako ahalik eta baldintza hobereenetan gauzatu dadila bermatzea.

3.4.4.1.3- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea.

3.4.4.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.4.4.1.5- Adierazleak

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.

3.5.- FARMAZIA-PRESTAZIOA

3.5.1.- Aita Menniri erakundearentzako dirulaguntza izenduna, farmazia-prestazioa jasotzeko eskubidea duten eta Aita Menniri atxikitako egoitzetan instituzionalizatuta dauden pertsonentzako farmazia-prestaziorako, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kargura, eta pertsona horien farmazia-arretarako.

3.5.1.1.- Helburuak

- Aita Menniri atxikitako egoitzetan instituzionalizatuta dauden eta farmazia-prestazioa jasotzeko eskubidea duten egoiliarrei sendagaiak prestatzea eta ematea, Osasun Sailaren kargura.
- Aita Menniri atxikitako egoitzetan instituzionalizatuta dauden eta farmazia-prestazioa jasotzeko eskubidea duten egoiliarrei farmazia-arreta ematea, Osasun Sailaren kontura.

3.5.1.2.- Zer lortu nahi den

Egoiliarren bizi-kalitatea hobetzea, tratamenduen jarraipen farmakoterapeutikoa eta bateratzea egitean jasotako farmazia-arretarengatik.

Dosifikazio-sistema pertsonalizatueta banatuz, hobetu egiten dira segurtasuna eta tratamenduarekiko atxikidura.

3.5.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, dirulaguntza izanduna emateko.

Hitzarmen bat sinatzea, Osasun Sailaren eta Aita Menniren artekoa, Osasun Sailak Aita Menniri eman beharreko konpentsazioa arautuko duten baldintzak ezartzeko, José Matía Calvo Fundazioaren Ricardo Bermingham Ospitaleari atxikitako sendagai-biltegiak dituzten egoitzetan instituzionalizatuta dauden eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kontura farmazia-prestazioa jasotzeko eskubidea duten pertsonen farmazia-prestazioa eta -arreta ematen egindako lana dela eta.

3.5.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hau finantzatzeko, EAEko aurrekontu orokorren aurrekontu-aplikaziora jotzen dugu. Osasun Sailarekin lotuta, plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan dago deskribatuta aplikazio hori.

Funts propioekin finantzatuko dira, Osasun Sailaren aurrekontuetako 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.5.1.5.- Adierazleak:

Osasun Sailaren aurrekontu-memoretan ezarritakoak, EAEko aurrekontu orokorretan. Plan honen epealdiko ekitaldi bakoitzeko Dirulaguntzen Urteko Planari dagozkion eranskinetan daude kuantifikatuta.